

Oñatiko EH Bilduk eta EAJ-PNVk mozio bateratua: espetxe politikak ezartzen dituen urrunketa politikoaren inguruan ETXERATEk aurkeztutakoa:

“Euskal Herria, 2020

13 urte betetzen dira gure bizilaguna zen Natividad Junko euskal presoei zein haien senide eta gertukoei espetxe politikak ezartzen dieten urrunketa politikaren ondorioz hil zela.

2007-12-22an Terueleko espetxera bidean, preso zegoen bere senidea zen Unai Gonzalez bisitatzera zihoala, herri honetako auzotarrak, Natividad Junkok, bizia galdu zuen errepidean jasandako istripu batean.

Heriotza hau ez zen kasualitatea izan. Berrogei minutuko bisita egin ahal izateko, 434 kilometroko bidaia egin beharko zuen espetxera irsteko, eta beste 434 kilometro etxera itzultzeko; bidai luzeak egitea aukera bakarra dute presoek senide eta lagunek bisita eskubidea bermatzeko, duela hiru hamarkada frantziar eta espainiar estatuetakoa gobernuek euskal presoek aurkako urruntze politika martxan jarri zutenetik.

Geroztik, beraien senide eta lagunek milaka kilometro egiten dituzte astero errepidean. Oraingoan, dokumentuekin egiaztatutako 344 kotxe-istripu gertatu dira; urrunketak 1.000 kaltetu eta zauritu inguru eta 16 hildako eragin ditu.

Memoria ariketa egitea guztiz beharrezkoa dela uste dugu, antzinako espetxe politika hau atzean uzteko garaia da, ezinbestekoak diren oinarriak behin betiko sendotzearekin batera, horrelakorik berriro ez gertatzeko aitortza ariketa egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

ERABAKIA:

1.- Terueleko espetxean urrunduta zegoen preso bateri bisitatzera zihoala, urrunketa politikak eragindako trafiko istripu batean hil zen Natividad Junkoren senideek pairatutako sufrimendua aitortzen du instituzio honek.


2.- Espetxeko Lege Orokorren birgizarteratze printzipioak jarraituz, askatasuna kentzeko zigorra dutenen deserrotzea ekiditeko urrunketaren espetxe politikarekin desadostasuna adierazten du udaletxe honek, eta era berean, ETAREN desagertzearekin ekarritako garai berriekin bat eginez, espetxe politika berri baten beharra ikusten du, zigortuak zigorra errotze sozial eta familiarretik gertu betetzea ahalbidertzen duena, horrela haien senideekin duten harremana erraztuz eta adingabeko seme-alaben eskubideak defendatuz, haien ongizatea bermatzeko.

3.- Preso dauden pertsonak urruntzea haien senide eta lagunei ezarritako zigor gehigarritzat hartzen dugu. Hori dela eta, espetxe politika honekin premiaz amaitzeko eskaera egiten dugu, Natividad Junkoren heriotza bezalako gertaerak berriz ere gerta ez daitezen.

4.- Legedi arrunta eta normalizatutako espetxe politika bat aplikatuz, beste neurri batzuekin batera, presoen problematikari erantzun bat ematea elkarbizitza demokratiko bat eraikitzeko ekarpen garrantzitsua litzatekeela uste du udaletxe honek.”


E.H. Bildu

Izaro Elorza Arregi



EAJ-PNV

Ainhoa Galdos Olazar



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER927f0044-b6f6-4537-a1f9-33717b2907e9**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>